

**autoestimua,
berdintasuna,
komunikazioa,
lankidetzeta,
ausardia,
errespetua...**
hauxe da bidea!

Azaroak 25
emakumeenganako
indarkeriaren
aurkako eguna



TRATU ONEN BIDEAN, HARREMANETAN

Aurten **STEE-EILAS**en Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunaren harira Tratu Onak aldarrikatzeko beharra ikusi dugu tratu txarrak ekiditeko. Beraz, aurtengo azaroaren 25eko proposamenak ildo honetatik joango dira eta zaharrak berri, berriz ere eskolan era hezkidetzailan lana egitera animatzen zaituztegu. Hezkidetzaren helburua genero berdintasunean hezte da, diskriminazioa sortzen duten desberdintasunak errotik kentzeko; diskriminazio hauen erarik larriena genero indarkeria izanik. Beraz, tratu txarren praktikak (indarkeria, agresibitatea, diskriminazioa...) tratu onen praktikengatik (bizikidetzak, kooperazioa, kolaborazioa...) aldatzean datza gakoa. Horretarako ezinbestekoa iruditzen zaigu ikastetxeetan harremanei duten garrantzia ematea, hezkuntza praktikan harremanei garrantzia emanez, estereotipoak ezabatzen dituen giroa sortuz eta onspena eta komunikazioa nagusituko diren harremanak bultzatuz.

Tratu onean hezteko auto-estimua, berdintasuna eta ondo tratatzen ikastea ere ezinbestekoak dira eta hiru ildo nagusi horiek landuko ditugu aurtengoan indarkeria sexistari aurre egiteko.

Umeak eskolara ailegatzen direnean ereduak eta rolak oso erroturik ekartzen dituzte. Mutiko gehienek maskulinitate tradizionalaren ereduak: indarra, boterea, konpetitibitatea, ... ondo barneratuta dute eta eredu hori aldatzen ez dugun bitartean berdintasunerako lan egitea oso zaila izango da. Hori dela eta jendarteko eragile eta sektore guztiok: familiak, eskolak, lantegiak, komunikabideak, ... inplikatu eta lan egin behar dugu indarrean dauden ereduak eta estereotipoak aldatzeko, tratu txarrek eta biolentzia sexistak inolako justifikaziorik izango ez dutelarik. Guztion parte hartzea ezinbestekoa da, azken batean, berdintasunean bizitzeak aberasten gaitu.

Tratu txarrei aurre egiteko bide bakarra tratu onekoa da, beraz ikasleei, hau da neskei eta mutilari, bide hori garatu dezaten, tresnak eman beharko dizkiegu ikasita edota ezagutzen duten eredu hegemonikoak aldatzeko.

Ondoren jarduera batzuk proposatzen dizkizuegu adibide gisa, baina beste mila aurkituko dituzue bai interneten bai eskoletan duzuen materialaren artean ere. Mailaren arabera jarduera hauek moldatzera animatzen zaituztegu agian batzuk aproposagoak izango direlako HH edo LH rako eta ez BH rako eta alderantziz. Azkenik esan, egunero eta uneoro gure lan egiteko moduan ikasleak era hezkidetzailan hezte iruditzen zaigula garrantzitsuena.



1. KARTELAREKIN LANTZEKO JARDUERAK

Helburuak:

- Ikasleek tratu txarrei buruz hausnartzea.
- Tratu onen garrantziaz hausnartzea.
- Neska eta mutilen artean egon daitezkeen iritzi desberdini buruz hausnartzea.

Materiala: EILASen kartela, arbela, post-itak, hiztegia.

Metodología:

1. Irakasleak EILASen kartela arbelean jarriko du eta ikasleriari bosna post-it banatuko dizkio.
2. Aho betez irakasleak banan-banan hitz guztiak irakurriko ditu hitz bakoitzaren esanahia post-it batean apuntatzeko esan eta gero.
3. Ikasleek, talde txikitan, atera diren esanahi desberdinak aztertuko dituzte eta hitz bakoitzeko esanahi bat erredaktatuko dute.
4. Talde handian komunean jarriko dira esanahi guztiak eta hiztegian agertzen direnekin konparatuko dira.
5. Ikasleek pentsatu beharko dute zer egoeretan behar edo ezinbestekoa dugun autoestimua, berdintasuna, komunikazioa, lankidetzak, ausardia edo errespetua.
6. Irakasleak azaroaren 25a zergatik ospatzen den gogoratu eta gero; kartelaren esanahiari buruzko debata bultzatuko du, tratu txarrak ekiditeko tratu onak ezinbestekoak direla azpimarratuz eta modu bakarra berdintasunean bizitzea dela.

Jarduera honen beste aldaera:

7. Ikasleek talde txikitan jarrita kartelean agertutako hitzak neskekin edo mutilekin lotuta daudenen arabera sailkatuko dituzte. Modu berean aurreko aktibitatean sortutako esanahiak jaso eta sailkatuko dituzte.
8. Ondorioak aterako dira:
 - i. Zer esanahi mota erabiltzen duten neskek eta zein mutilek?
 - ii. Zer desberdintasun daude neskekin lotutako egoerak eta mutilekin lotutako egoeren artean?,
 - iii. Desberdintasun nabarmenik balego, non dira?
 - iv. Mutilak nola sentitzen dira? Eta neskak?



2. AUTO-ESTIMUA

Auto-estimua norberak bere buruarekiko duen kontzeptua eta onarpen maila da. Haurtzaroan familian, eskolan, eta lagunekin sortzen ditugun harremanen arabera sortzen da. Irakasleok ikasleengan auto-estimua bultzatzeko betebeharra dugu beraien ezaugarri onak indartuz eta hauek garatzera animatuz. Inork ezin du gutxienezko auto-estimurik izan ez baldin bada neurriren batean baloratua izan, besteen errekonozimenduan baitu du oinarria. Ezin dugu ahaztu ere, auto-estimua gure errespetu eta besteen balorazio gaitasunekin batera garatu behar dela, egozentrismo eta nagusikeriatik urrunduz. Baina ezin dugu ahaztu gaitasun eta helburuak genero estereotipoekin gurutzatuak jarraitzen dutela. Badaude aukera eta ezaugarri batzuk "neska ereduarekin" bat datozenak eta beste batzuk "mutil ereduarekin".

Adi egon behar dugu neskak gaitasun jakin batzuetatik eta mutilak beste batzuetatik baloratuak ez izatea genero estereotipoen arabera.

Hainbat ikerlanek baieztatzen digute auto-estimua bi mundu daudela: bata neskena eta bestea mutilena eta beraz emakumezkoena eta gizonezkoena. Neskek beraien buruari egozten dizkiote akatsak mutilek baino gehiago eta arrakastak zoriari eta kanpoko gertaerei; mutilek berriz, kontrakoa egiten dute: akats eta hutsegiteak zoriari eta kanpoko egoerei eta arrakastak beraien balioari.

HELBURUAK:

- Norberaren burua baloratzen ikastea
- Beste pertsonak baloratzen ikasi, genero estereotipoak baztertuz.

1. JARDUERA: "Gauza asko egiten dakizkit"

Helburua: Hobeto edo okerrago egiten dugunaren kontzientzia hartu.

Jarduera: Borobilean ikasle bakoitzak esango ditu egiten dakizkin 3 edo 4 gauza. Arbelean idazten joango gara. Ikasleak aspektu batean bakarrik konturatu ez daitezen bultzatuko ditugu, adib: kirolak, ekintza motrizak, eskolan egiten dituzten jarduerak... Haratago joatea komeni da ikustarazteko badaudela barneratuta dituzten jarrera baikorrak eta ohiturak. Bakoitzak ezagutu eta baloratu beharreko jarrera eta ohitura positibo asko dituela ikustaraztea da gakoa.

2. JARDUERA: "Primerako pertsona zara"

Helburua: Beste pertsonak baloratu eta beraiengandik baloratua izatea ikastea.

Jarduera: Talde handian ikasleek pertsonen ezaugarri positiboak esango dituzte eta irakasleak arbelean idatziko ditu; ezaugarri positiboen ideia zaparrada egingo da hurrengo pausuan ikasleek ikusmira handiagoa izan dezaten.

Gero, ikasleak borobilean zutik edo eserita jarriko dira. Ondokoaren ezaugarri positibo bat pentsatzeko denbora eman eta denek pentsatua dutenean jolasa hasi. Batek pilota botako dio ondokoari honen alderdi edo ezaugarri positibo bat esanez. Jolasa borobila osatzen denean bukatuko da, baina nahi beste buelta egin daiteke ezaugarri mota desberdinak esanez: fisikoa, ondo egiten duena, izaera...

Materiala: pilota bat



3. BERDINTASUNEAN HEZI

Legeek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzen duten arren, hauen ezarketa praktikoak denbora eta ahalegina eskatzen du, oraindik ere, bai eskola munduan baita hortik kanpo ere, portaera sexistak ikusi baititzakegu; mentalitateak eta pertsonen jarrerak ez direlako aldatzen lege hutsekin. Gehienetan portaera hauek automatikoki egiten ditugu, pentsatu gabe, nahiz eta gure ideia eta iritzien kontrakoak izan, arlo emozionala baita aldaketa sozialen erresistentzia gunea (askotan inkontzientea).

Generoaren eraikuntzan hezkuntza mailan ze neurritan parte hartzen dugun gogoeta egin beharra dugu; pertsonetan pentsatu behar dugu generoa kontutan hartu gabe, hau da, ikasleen desio, gustu, estilo...genero batean edo bestean sartu beharrik izan gabe, baizik eta denentzat berdinak izango diren errespetu eta elkarbizitza arauetan oinarritu.

Honek begi eta belarriak erne izatera behartzen gaitu, gure buruari beti alderantzizko galdera egin araziz, hau da, berdin pentsatu, espero, tratatuko nuke neska edo mutila izango balitz? Neurri zuzentzaileak ere ezarri beharko ditugu ezin baitugu ahaztu genero estereotipoak lehen haurtzaroaz geroztik sortzen hasten direla.

HELBURUAK:

- Gaur egungo gizartean bizi ditugun genero desberdintasunak ikusarazi
- Berdintasunean bizitzeko tresnak landu

1. JARDUERA:

Ipuinak aztertu HH eta LH 1.zikloa: Loti Ederra, Mari Errauskin, Hansel eta Gretel, Eburne zuri...

HHko lehen mailetan talde handian egin daiteke azterketa, 4 eta 5 urtekoekin lehengo talde txikian talde bakoitzak ipuin bat aztertuko duelarik eta gero talde handian.

GIDOIA:

- Ze pertsonai azaltzen dira ipuinean?
- Zenbat mutil azaltzen dira?
- Zenbat neska azaltzen dira?
- Mutilak nolakoak dira?
- Neskak nolakoak dira?
- Zer egiten dute mutilek?
- Zer egiten dute neskek?
- Neskek mutilek egiten dutena egin dezakete?, eta alderantziz?

HAUSNARKETARAKO:

- Adinaren arabera talde txiki edo handian berdintasunezko harremanak azaltzen diren ipuinak asmatu, bilatu.



2. JARDUERA:

Bideo Joko edo kontsolak aztertu LH 2 eta 3.zikloa eta DBH

Ikasleek aldez aurretik adosturiko bideo jokoak ekarriko dituzte etxetik. Komeni da ekartzen diren guztiak desberdinak izatea.

Talde txikietan bideo jokoan azterketa egingo dute genero ikuspegitik (aurrerago gidoi posible bat doa). Azterketa egin ondoren ondorioak aurkeztuko dituzte talde handiaren aurrean eta ezaugarriak arbelean idatziko dituzte.

GIDOIA:

- Ze pertsonai azaltzen dira bideo jokoan?
- Zenbat mutil azaltzen dira?
- Zenbat neska azaltzen dira?
- Mutilak nolakoak dira?
- Neskak nolakoak dira?
- Zer egiten dute mutilek?
- Zer egiten dute neskek?
- Ze arropa daramate mutilek?
- Ze arropa daramate neskek?
- Nekek mutilek egiten dutena egin dezakete?, eta alderantziz?
- Zergatik uste duzu ez dutela egiten?

HAUSNARKETARAKO:

- Bideo joko gehienak gizonezkoek egindakoak dira, emakumezkoek egin izan balituzte nolakoak izango lirateke?
- Nola sentitu zarete mutilak bideo jokoan aritzean?
- Nola sentitu zarete neskak bideo jokoan aritzean?

3. JARDUERA:

Talde txikietan berdintasunean oinarrituriko bideo joko baten gidodia egin. Talde handian aurkeztu eta aztertu.



4. ONDO TRATATZEN DUGU ELKAR

Pertsonen arteko harremanen eredia neurri handi batean transmititu egiten da. Tratu txarrak ekiditeko ondo tratatzen ikasi beharra dugu. Era guztietako tratu txarrak identifikatu eta tratu onerako tresnak eskaini behar dizkiegu ikasleei. Balore aldaketa eragin behar dugu pertsona guztion berdintasuna landuz neska edo mutil jaiotzeagatik ezarritako ereduak alde batera utziz eta onarpena eta komunikazioan oinarritutako harremanak sortu behar ditugu.

HELBURUAK

- Errespetuzko harremanak, elkartasunezkoak eta orekatuak ezarri beste pertsonekin egoera desberdinetan.
- Eraso eta indarkeri egoeretatik libre bizitzeko jarrera eta trebetasunak garatu ikasleengan.

1. JARDUERA: Laguntasuna

- Gela 4edo 5 pertsonetako taldeetan banatzen da eta fitxa ematen zaie.
- Talde bakoitzak istorio bat aukeratzen du, kontutan harturik bat bera ere ezin dela geratu aukeratu gabe.
- Egoeraren elkarrizketa idatziz egingo dute eta gero antzeztuko dute.
- Antzezpen bakoitzaren bukaeran hausnarketa bat egingo da egoerari irtenbideak emateko. Hauek izan daitezke hausnarketa horretarako laguntza galderak:
 - a. Zer hobetuko zenukete jarrera hauetan?
 - b. Zer mantenduko zenukete?
 - c. Ze gomendio emango zeniekete inplikaturiko pertsoneri?
- Ondorioak idatziz jasoko dira.

Aukerako jarduera:

Antzezpenak bidez grabatu daitezke bigarrenez ikustean konponbide proposamen berriak azal baitaitezke.



Fitxa

“ Behin gertatu zitzaidan...”

Nerea eta Miren eskolako txikitako lagunak dira. Institutura iritsi direnean lagun berriak egin dituzte eta elkarrengandik distantzia hartzen ari dira. Nereak ez du oso ondo ulertzen bere lagunak zergatik ez dion lehen bezain besteko kasurik egiten, baztertua sentitzen da eta Miren zirikatzea erabakitzen du gezurrak esanez, irabioka...

“ Egiten ez baduzu...”

Ikerrek nahi du Jonek bere amaren sinadura egitea irakasleak etxeko lanak ez egiteagatik eman dion oharrean. Badaki oharra amari emanaz gero haserretu eta zigortu egingo duela, baina Jonek ez du sinatu nahi, hori egitea ondo ez dagoela pentsatzen duelako. Ikerrek esan dio egiten ez badu irakasleari kontatuko diola azterketan kopiatu egin zuela...

“ Zer uste duzu...”

Mikelek badu ikaskide bat beti berari jarraika dabilena, iraintzen du eta gauzak kentzen dizkio. Mikelek beldurra dio eta bere ikaskideak eskatzen dion guztia egiten du, dirua ere eman izan dio nahiz eta jakin ez duela egin behar, baina badaki ezetza esanda jo egingo duela. Beldur da.

...

2.JARDUERA: Tratu onak, tratu txarrak

- Gela 4edo 5 pertsonetako taldeetan banatzen da eta txartel bana ematen zaie.
- Txartelean azaltzen den egoera tratu ona ala txarra den identifikatu behar dute eta adinaren arabera zergatiei buruz ere hitz egin dezakete.
- Tratu txarra dela erabakitzen badute beste lau esaldi posible emango zaizkie horien artean tratu onekoa zein den erabaki dezaten.
- Talde guztiek bukatu ondoren talde handian azalduko dituzte ondorioak.



Txartelak

1. Tratu ona ala txarra den identifikatu

- Gelako lagunekin zinemara joatea pentsatzen ari naiz.
- Zer?, berriz ere zure laguntxo horiekin geratu behar al duzu, ezta pentsatu ere!

2. Tratu ona ala txarra den identifikatu:

- Egia esan, gaur ez dut irteteko gogorik, oso nekatuta nago
- Oso ondo laztana, nahi duzun bezala, deskantsatu eta bihar deituko dizut ea irteteko gogorik baduzun.

3. Tratu ona ala txarra den identifikatu:

- Badakizu gorroto dudala mugikorrari ez erantzutea, zeinekin zeunden? Beste batekin al zeunden?
- Mugikorra itzalita nuen liburutegian ikasten ari nintzelako.

4. Tratu ona ala txarra den identifikatu:

- Zer esan dizu tentel horrek? Zertaz ezagutzen duzu?
- Lagun bat da eta agurtu besterik ez dut egin.

1. Egoera tratu txarra bada hona tratu onaren aukera identifikatu:

- Ez, zinemara joan nahi baduzu, nirekin joango zara.
- Hobe ikasten hasten bazara, ea zerbait gainditzen duzun.
- Zure laguntxo horiekin hitz egin beharko dut.
- Oso ongi, ondo pasa eta eman goraintziak.

3. Egoera tratu txarra bada tratu onaren aukera identifikatu:

- Ordu betean hogeai aldiz baino gehiago deitu nizun, zer ari zinen egiten?
- Mugikorra erantzuten ere ez al dakizu ala?
- Seguru zure laguntxoei erantzuten diezula.
- Arduratuta nengoen, deitu nizun eta ez zenidan erantzun, ondo al zaude?

4. Egoera tratu txarra bada tratu onaren aukera identifikatu:

- Ikusten dituzun mutil guztiak agurtu behar al dituzu?
- Zertaz ezagutzen duzu zuk harroputz hori?
- Nirekin bazaude zure laguntxoetaz ahazten hasi behar duzula esan dizut.
- Zenbat lagun dituzun, niri ere gustatuko litzaidake horrenbeste jende ezagutzea.



BIBLIOGRAFIA

- Flores Ramos, Estela. "La Resolución de conflictos en el aula. Una propuesta para al convivencia en educación infantil". Ed Trillas
- Porro, Barbara. "Las resoluciones de conflicto en el aula". Barcelona: Paidós 1999
- ESCEPI – "Enseñanza de soluciones cognitivas para evitar problemas interpersonales, programa de habilidades sociales y educación en valores para la convivencia".
- Arcas, Margarita y Segura, Manuel "Relacionarse Bien". Madrid: Narcea 2004
- " Ni ogros ni princesas" gida web:
web.educastur.princast.es/proyescetos/coeduca
- Monjas Casares, Inés. "Programa de Enseñanza de habilidades de Interacción Social para niños y niñas en edad escolar y adolescentes". PEHIS
- Harimaguada "Sexpresan" heziketa sexualerako programa interaktiboa.
www.harimaguada.org
- "Prevenir la violencia. Una cuestion de cambio de actitud" Cuadernos de educación No sexista N° 7. Instituto de la Mujer
web: www.migualdad.es/mujer/publicaciones/catalogo/cuadernos_educacion.htm
- " Sentir y pensar" Adimen emozionaleko programa. sm argitaletxea.
web:
www.infantil.profes.net/inteligencia.asp
www.primaria.profes.net/inteligencia.asp
- "Guia de salud y desarrollo personal para trabajar con adolescentes". Pamplona: Gobierno de Navarra. Departamento de Salud. Departamento de Educación ,Cultura y Juventud.1995
- "Guia didactica para el analisis de los videojuegos"
www3.unileon.es/dp/ado/ENRIQUE/Documento/guiadidactica.pdf

IRAKASLEENTZAKO WEB ORRIAK

- www.educarenigualdad.org
- Zubiak eraikitzen hezkidetza taldea.
Bloga: <http://zubiakeraikitzen.blogspot.com>
- www.stee-eilas.org

